

Etxebarre 1

Beretterbideko pottiko larleinen hoin herexak, phatargorrietan aizatü ziren, hegillaz hegilla, erhauts. Nonko xenderen kürützetara ?

Pekelgean ? Ez, zeren han : ” phikiegi, phikiegi, phikatea soroskilleta. ”Ez beitzen haatik pekelgean beretterbideko pottiko larleinen, ez hoin herexarik, haboroziz erhautsik...

Ordüan, non ? Bost larretako zokho zonbaiten larrandan lurta ? Ala harbeltzetako harrarte baten ohan, üthürrotxe berri goraita ? Non ez züan askalte batean iratilürra hazi ? Esküairean olopipitak dio : ”Garattütte garattütte ezetz ! Beretterbideko pottiko larleinen hoin herexeen erhautsak ez beitzakian lohitik etxebelharti berpitz zitekeela” Sakixarre xokhoko sagarnütak dion bezala : ” Xüntha xüntha zehetiola, naabola naaaabola, iragaia müüxe müüüüxeeeeeeeee !! Axurietzangia püntatik ikusten da, erhauts güzien belate, Erramun ütürria, bizi nahiant güzien ütürona, bordaxuriko etxelgean ihitzodi, zorionen bazkaki, ametsen lomendi : Ez zerrabürüa, gaur danik beita non nahi biharraren hurtatze, beretterbideko pottiko larleinen hoin herexaren erhautsak, liherria ez dezan ilherri bilaka.

Ardoaren odihandia, ”latsagakoa” deitzen denian, ordian, lezekarban den moxkorra, behizaintza, axurherri eta bagobakhotxa aurri ütüzita, ardotzeko minen men da, eta bere oihüak entzüten ümen dira, algortekozola, althaineta, aranthola, arantzelge, eta arantxüxen gainti, oiharzün üholde : ”Ahüxkaparre gameretan, hegohena, hegohenahe, hunki düka larramendiko borotxüa ? Llerden ez othe düa igüiñe ?! Ez zerrabürüa, gaur danik beita non nahi biharraren hurtatze, beretterbideko pottiko larleinen hoin herexaren erhautsak, liherria ez dezan ilherri bilaka.